

ZUMAIA / Alondegia kultur etxearen urteurrena ospatuko da asteburuan

Urtebete pasa da Alondegia kultur etxe berria estreinatu zenetik. Urtemuga ospatzeko kultur ekitaldiz osatutako asteburua prestatu du Udalak. Lehen urteak eman duenaren balorazio ona egin dute Udaleko kultura arduradunek, "herritarrek bere sentitu dutelako".

Horren adierazle da bertan antolatu diren hitzaldi, kontzertu, erakusketa, bilera eta bestelako ekitaldien kopurua. Adibide bezala jartzearen, Oxford aretoan egiten diren erakusketak 2013rako programatzen ari dira, dagoeneko, eta urte hori ere betetzear da. Erakusketei herritarrek emandako erantzuna ere bikaina izan da; izan ere, urtebetean 10.000 ikusletik gora pasatu dira aretotik.

Liburutegia

Urtebete honetan, liburutegia askoz ere jende gehiagok erabili du. Horren erakusle dira datuak. Liburutegiaren erabiltzaileen kopuruak % 91 egin du gora. Eta liburutegiko txartela atera eta bazkide egin direnen kopurua hirukoiztu egin da. Gaur egun, 4.121 pertsonak dute bazkide txartela.

Bazkide kopuruak gora egitearekin batera, liburuen mailegu kopuruak ere nabarmen egin du gora. Lehen urtebete honetan, 2010ean baino %40 mailegu gehiago izan baitira.

Urteurreneko ospakizunak

Ostirala 11

19:30ean, Jon Maiaren Gazta zati bat dokumentala, Aita Mari aretoan.
22:00etan, Aldatzen Laguntzen taldearen Ispilua antzezlan, Oxford aretoan.

Larunbata 12

19:00etan, Los trotamusicos soul taldea, Kofradian.
19:30ean, Jon Maiaren Gazta zati bat dokumentala, Aita Mari aretoan.
22:00etan, Euslandia-Unibertso txiki bat ikuskizun anitza: musika, antzerkia, pintura... Oxford aretoan.

Igandea 13

18:00etan, Apika taldeko Monda eta Lironda pailazoen Dinosaurio egitasmoa ikuskizuna, Oxford aretoan.
19:30ean, Jon Maiaren Gazta zati bat dokumentala, Aita Mari aretoan.